# Eraikuntzan Teknologia Berrien Eskola eraikitzea: Madariene baserria birgaitzea.

## Gernika-Lumoko Udala




Proiektu honetan “Madariene” izeneko baserria birgaitu da, Eraikuntzan Teknologia Berrien Prestakuntza Zentro bezala erabiltzeko. Era berean, kulturaren eta prestakuntzaren eremuko azpiegiturak eta ondarea babesten eta zaintzen lagundu du.

Baserri hau birgaitzean honako helburuak planteatu dira:

- Eraikuntzaren sektorean prestatzeko espazioa gaitu eta hornitzea.
- Prestakuntzan eraikuntzaren teknika berriak, material berriak, ingurumen-planteamenduak, etab. sartzea.

*Una manera de hacer Europa*
Fondo Europeo de Desarrollo Regional

BFA
DFB

Unión Europea

- Enpresei erakusketak egiteko espazio moldatua izatea.
- Baserriaren egitura mantenduz, eraikin berezia moldatzea.
- Industriaren eta eraikuntzaren sektoreetako enpresei teknologiak eta ezagutzak transferitzea.
- Aurrerapen teknologikoak hedatzea.

Madariene baserria birgaitu eta berritu, ekipatu eta ingurunea egokitu ostean, 2010az gero bere instalazioetan prestakuntza-ikastaroak irakasten dira eta eraikuntza-enpresetan lehiakortasuna eta berrikuntza bultzatzeko politikak eta estrategiak ezartzera bideratutako ekintzak gauzatzen dira, baita sektorearekin, material berriekin eta aplikazio tekniko berriekin zerikusia duten enpresa-ekimen berriak garatzera ere.

Proiektu honen esparruan egiten ari diren jardueren ondorioz, diziplina askotako enpresa-taldea osatu ahal izan da eta eraikuntzari lotutako eskualdeko enpresak ezagutu dira. Sektorerako enpresen topaketa- eta dinamizazio-espazioa sortu da eta, horri esker, jarduera desberdinak dituzten enpresak hurbildu dira, horiek eraikuntzaren prozesuan balio-katean parte hartzen baitute.